

GIL 139 Arditurriko meatzeak



Arditurriko meatze-inguruneko ikuspegi panoramikoa. Aiako Harriko oinarrian dago, plutoi granitikoarekiko kontaktutik oso gertu.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43°17' 01,22" N
Long.: 1°48' 18,10" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 596.952,00 m
Y: 4.793.012,00 m



Nola iritsi

Arditurriko meatzetara Oiartzundik joaten da, Lesakara doan errepidetik. 4 km egin ondoren, ezkerretara joko dugu. Ibaia gurutzatu, eta meatzearen instalazioetarako bidea hartuko dugu; 1,5 km egin ondoren iritsiko gara.



Meatzea bisitatzeko erabat egokitua dago. Pilare gaineko argi-jokoa ikusgarria da. (Oiertzungo Udalak utzitako argazkia).

GILaren deskribapen laburra

Arditurriko meatzea Oiertzunen dago, herrigunetik ekialderantz, Aiako Harria Parke Naturalean. Martxan egon zen azken urteetan, berun-, zink-, fluor- eta bario-mineralak ustiatu ziren (Herrero 1977, Pesquera eta Velasco 1989), baina, historikoki, burdina oso garrantzitsua izan zen. Meatzaritza 1984an amaitu zen.

Pb-Zn-F-Ba (Fe) hobiak Bortzirietako mendiguneko metasedimentu karbonifero westfahliarrei dagozkie, eta Aiako Harriko granitotik gertu daude.

Mineralizazioa arbel-materialetan txertatuta dago (pelita kuartzodunak; klorita; muskobia; eta mikrokonglomeratu eta dike doleritikoak tartekatutako dituen material grafitokara), eta gorputz lentikular etenen formakoak dira. Tarterik gehienetan, 5 m-tik beherrako lodiera dute, baina 20 m-rainokoak ere ustiatu ziren batzuetan. Hasiera batean, gorputz mineralizatuak NNE-SSW norabideko eta okerdura handiko filoi gisa sailkatu ziren, baina ondorengo lanek (Pesquera, 1985, Pesquera eta Velasco, 1989) izaera estratiformearen alde egin zuten, tolestura eta hertziniar deformazioaren xehetasunekin. Mineralizazioaren morfologia masiboa da, banda-egiturakoa edo filoniar birmobilizatua. Mineralogian, honako hauek daude: esfalerita, fluorita, galena, siderita, barita eta piritita eta kalkopirita-aztarnak. Esfalerita sideritadun eta kuartzoduna ohikoagoa da ekialdeko sektoretan; mendebaldekoetan, berriz, galena, fluorita eta kaltzitan aberasten dira.

Mineralizazio masiboa ohikoa da Oportunan eta Olandietan, non esfalerita, oro har, krema-koloretik marroi ilunerako "jasperoide" batean sakabanatzen baita, pikor fineko kuartzoaren kantitate aldakorrek diluitua. Banda-egiturako mineralizazioa Otsamen-



Meazulo nagusiaren kanpoaldean, badira aire zabaleko ustiategiak ere.



Meatze nagusiaren kanpoaldean, badira beste galeria txikiago batzuk.

tegi, Santa Barbara eta Oportunan ageri da. Lamina txandakatzailleak (esfalerita-fluorita-barita-metapelitak) arbel-mailen kontaktuarekiko paraleloak dira. Mineral batzuetan, testura mikroskopiko premetamorfikoak ageri badira ere (pirita franboidalak edo atoloi-testurakoak), mea gehienetan (esfalerita, kalkopirita, galena, pirita) deformazio harikorraren eraginak ikusten dira, edo 350 °C-tik beherako tenperaturako birkristalizazioarenak. Biak ere bateragarriak dira material pelitikoetan kloritaren zonara iristen den eskualdeko metamorfismoarekin.

Mineralizazioek jatorri sedimentario-exhalatiboa (“sedex”) izan zuten, fluido hidrotermaletatik abiatuta itsaspean esfalerita, galena, fluorita, barita, karbonatoak eta silizea meatzearen ondorioz. Metakin horiek Culm fazieseko sedimentu pelitikoekin tartekatu ziren (Goi Karboniferoa), eta mineralizazio masiboak eta banda-egiturakoak sortu zituzten. Gerora, hertziniar deformazioa eta ondorengo birmobilizazioak jasan zituzten.

Interes ekonomiko-historikoa

Baliteke zona hori 2.000 urtez ia etenik gabe ustiatu izana. Zona horretan, galena zilar-duna lortzeko indusketa erromatarren aztarnak aurkitu dira; beraz, litekeena da Burdin Aroan jada inguru horretan mineralak ustiatu izana. Erdi Aroan, burdina ustiatu zen —erromatarrentzat, berriz, ez zen interesgarria izan—, eta inguruan burdinola ugari izan ziren. Real Compañía Asturiana de Minas-ek eta haren filialek, 1880tik 1984ra bitartean, 120 milioi tona mea eta ganga erauzi zituzten Oportunako, Santa Barbarako, Otsamantegiko, Olandietako... meatzeetan; batez besteko legeak hauek izan ziren: % 59 zinka, % 0,51,5 beruna, % 1020 fluorita eta 50 g/t zilarra.

Gaur egun, gune horretako interes geologiko-historiko-pedagogikoa areagotu egin da, interpretazio-zentro bat ireki delako (<http://www.arditurri.com>), eta antzinako meazuloetako batzuk bisitatu egin daitezke.



Arditurri meatzeko bisitarien zentroko interpretazio-aretoaren itxura.

Behatzeko punturik onena

In situ. Meatzearen bisita, publiko orokorrari egokitua.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 1, GIL 2, GIL 3, GIL 4, GIL 5, GIL 71.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 140, GIL 145, GIL 147, GIL 148, GIL 149.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				●
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	EAEn dagoen meatze zaharretako bat da. Erromatarren aztarnak daude, eta, gaur egun, bisitatzeko egokituta dago.				



Meatzeko galerietara egindako ikerketa-bisita, turistentzat egokitzeari begira.

Bibliografia espezifikoa

- Herrero, J. M. (1977): *Estudio mineralógico y metalogénico del yacimiento plombo-cincífero de Olandieta (Oyarzun, Guipúzcoa)*. Lizentzia-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea (argitaratu gabea). 129 or.
- Pesquera, A. (1985): *Contribución a la mineralogía, petrología y metalogenia del macizo paleozoico de Cinco Villas (Pirineos Vascos)*. Doktore-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea (argitaratu gabea). 577 or.
- Pesquera, A. eta Velasco, F. (1989): *"The Arditurri Pb-Zn-F-Ba deposit (Cinco Villas massif, Basque pyrenees): A deformed and metamorphosed stratiform deposit. Mineral"*. Deposita 24, 199-209.
- <http://www.arditurri.com>